


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2012ko martxoa

Euskal AEko industria jarduera %7,6 murriztu zen 2012ko martxoan

Euskal AEko industria produkzioa, aurreko hilarekin, 2012ko otsailarekin alderatuta %2,4 jaitsi zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2012ko martxoan %7,6 murriztu zen Euskal AEko industria produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousetan, 2011ko hil beraren aldean. Urtaroen eragina zuzenduta, %2,4 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2012ko otsailarekin alderatuta.

1. grafikoa. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Hilez-hilekoak. Urte arteko hazkunde-tasak. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea (IPI)

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2012ko martxoko indizearen bilakaerak den-denen jaitsierak erakusten ditu, 2011ko martxoaren aldean. Ekipo-ondasunak %8,2 jaitsi dira; Bitarteko ondasunak %7,9, eta Kontsumo-ondasunak %4,8. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorrak %6,0 jaitsi dira eta Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %4,5. Energia %13,2 jaitsi da.

2012ko martxoko hil arteko aldakuntza, 2012ko otsailaren aldean, ezberdina izan da industri talde handietan. Energia %2,3 jaitsi da, Bitarteko ondasunak %1,1, Ekipo-ondasunak %3,9 eta Kontsumo-ondasunak %3,9 hazi. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %4,9 hazi dira eta Kontsumo-ondasun iraunkorrak %0,1.

2012ko martxoan, aurreko urteko hil beraren aldean hazkundeak izandako sektore garrantzitsuen artean: *Material eta ekipo elektrikoa*, %5,9; *Makineria eta ekipoa*, eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna*, %5,5 bietan.

1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-9,2
09 - Kautxua eta plastikoak	-8,3
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	5,5
13 - Makineria eta tresneria	5,5
14 - Garraio-materiala	-11,4
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-8,4
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	0,5
12 - Material eta tresneria elektrikoa	5,9

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak.

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Garraio materiala sektorean urte arteko %11,4ko jaitsiera dago; *Metalurgia eta metalezko produktuetan* %9,2koa eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoetan* %8,4koa.

Lurraldeei dagokienez, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan: Gipuzkoan %9,7 jaitsi da, Bizkaian %8,2 eta Araban %2,6. Hil arteko hazkunde-tasa negatiboa izan da Gipuzkoan, %5,8, eta Bizkaian, %0,9; Araban %1,5 hazi da 2012ko otsailaren aldean.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Hazkunde-tasak. 2012 martxoa (p)

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	2012Mar / 2011Mar	M(2012Mar) / M(2011Mar) *	2012Mar / 2012ots	2012ots / 2012urt
Indize orokorra				
Euskal AE	-7,6	-4,9	-2,4	-0,2
Araba/Álava	-2,6	-1,6	1,5	-3,4
Bizkaia	-8,2	-7,4	-0,9	1,4
Gipuzkoa	-9,7	-4,1	-5,8	0,0
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-4,8	-2,1	3,9	-2,6
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-6,0	-7,9	0,1	0,1
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-4,5	-0,5	4,9	-3,3
Ekipo-ondasunak	-8,2	-1,1	-3,9	-1,6
Bitarteko ondasunak	-7,9	-5,9	-1,1	-0,5
Energia	-13,2	-14,6	-2,3	2,3

(*) 2012ko urtarritetik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2011ko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Argibide gehiago nahi izanez gero:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](http://Euskal_Estatistika_Erakundea/Instituto_Vasco_de_Estadística)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua